



**BIZKAIKO Batzar Nagusiak eta euskara: 1833-1877. Euskarazko testuen bilduma eta azterketa**  
Andres Urrutia Badiola (Zuz.). – Bilbo : Bizkaiko Batzar Nagusiak, 2003. – 383 or. ; 31 cm.

Euskara eta zuzenbidea elkartzen dituen jakintza-arlorra hurbildu den edonorentzat guztiz ezaguna da Andres Urrutia Badiola euskaltzaina, argitalpen honen egilea den ikertzaile-taldearen buru eta zuzendaria. *Euskara Legebidean* (1990) du gai honi buruzko lehen monografia, aurretik argitaraturiko artikuluz osatua, eta bost urte geroagokoa da *Euskara Zuzenbidearen Hizkera*, Deustuko Unibertsitateko hainbat irakasle eta kiderekin ondutako lan alboraezina. Harrezkero, etengabekoa izan da Andres Urrutia euskaltzainaren jarduna zuzenbideko euskara lantzen, bai bakarka, bai liburu honen egilekide agertzen diren izenekoen lankidetzan. Zalantzarik gabe bera dugu, liburu honetan ere lankide duen Gotzon Loberarekin batera, gai horiei buruz lan gehien argitaratu duena.

Liburuaren edukiari gagozkiola, izenburuan berean zehatz eta mehatz adierazita dagoenez, ez dugu beste azalpenik eman behar: XIX. mendean Bizkaiko erakunde gorenak idatzitako testu batzuen aurkezpena eta azterketa da.

Jakina da, eta liburu honetan ere berresten da, euskara ez dela inoiz izan jardue-  
ra juridikoaren tresna idatzia, eta Euskal Herriko erakundeek eta administrazioek ez dutela maiz erabili izan euskara beren jardunetan; are gehiago, beste hizkuntzak erabiltzea izan dela arau, eta euskararena salbuespen. Horrek azaltzen du orain dela urte gutxi arte euskal testu administratibo eta juridikoak aurkitzea eta argitaratzea filologoen eta historiagileen langintza izana, ez legelariena.

Horrela, XV. edo XVI. mendeaz geroz euskaraz idatzitako testuen berri eman digu-  
tenen artean, Serapio Mújika, Pierre Lafitte, Eugene Goienetxe, Jose Maria Satrustegi, Angel Irigarai, Koldo Mitxelena, Florenzio Idoate, eta beste euskaltzale eta historialari-  
ren izen ospetsuak dauzkagu; ez legelarik, edo ez, bederen legelari gisa. Horiei, eta beste hainbati esker, etengabe, baina aleka, joan dira kaleratzen edukia edo helburua, edo biak, juridikoak zituzten agiriak eta dokumentuak, baina argitalpen gutxi ditugu euskal testu juridiko-administratiboak, bere izaera hori dela-eta, bildu eta plazaratu dituenik.

Gutxi, baina bai batzuk. Garrantzitsuenak aipatzearren, berehala datorkigu burura Margarita Ricak, 1975an frantsesez argitaratutako “Traduction en basque de termes politiques sous la Revolution”, Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo delakoaren 1975ko alea ia osorik betetzen duen artikulua mardula, euskal lurralde bateko agintariak euskara erabiltzen egindako saiarik luzeenaren eta jarraituenaren berri ematen diguna. Ricak testuak argitaratzeaz gainera, garaiko Frantzia iraultzailearen hizkuntz politikaren gorabeherak aztertu, eta alderdi linguistikotik ere,

euskarara itzultako agirietako lexikoa sailkatu eta aztertu zuen. Zenbait aldetik, hortaz, esku artean dugun liburuaren aurrekari zuzen-zuzena, nahiz eta bere garaia ume zenez, baliabide gutxi izan zituen lantzeko eta argitaratzeko.

Hurrengo urteetan, lehen aipaturiko filologo eta historialarien eskutik gero eta euskal testu juridiko eta administratibo gehiago atera da argira, baina ez dugu ezagutzen Ricarenaren ildokorik.

1980ko azken urteetan, eta bereziki 1990eko hamarraldian, agertzen da euskal testu juridiko historikoak, juridikoak direlako, aztertzeko grina. Euskarak ofizialtasuna lorturik, zuzenbidearen praktikara eta didaktikara egokitze beharrak bultzatzen du hainbat legelari eta euskaltzale historian zehar ondutako apurrak behar bezala balioztatzeri eta ezagutarazterari, ezer gutxietsi gabe. Ikermodu berri horretakoak dira aipaturiko Andres Urrutia eta Gotzon Loberaren lanez gainera, Txomin Peillenenak, Maité Lafourcaderenak, Alberdi eta Rilovarenak, Cesar Gallastegirenak, Antton Elosegirenak, eta beste hainbatena. Izan zuen zabalkundearengatik aipatzekoa da Gotzon Egiak Senez aldizkarian argitaraturiko “Noiz sentituko dira merak gure alkateak” artikulua gogoangarria.

Filologoena, legelariena eta historialariena lanei esker, une honetan askoz hobeto ezagutzen dugun gure aurrekoek Zuberoatik Bizkairaino mendez mende idatziz utzi duten bere jardun juridikoaren lekukotasuna.

Eta lan horren guztiaren bilduma bezala, hor dugu Imanol Trebiñok 2001ean argitaraturiko *Administrazio zibileko testu historikoak* izenburuko liburu mardula, zeinetan XV. mendeko esaldi bakan haieetatik hasi eta XX. mendearen bukaeraraino administrazio zibiletan idatzitako testuak osotasunean ezagutzeko aukera ematen digun. Ricarena eta Trebiñorena, beraz, esku artean dugun liburu honen aurrekari beteenak.

*Bizkaiko Batzar Nagusiak eta euskara: 1833-1877. Euskarazko testuen bilduma eta azterketa* liburu mardula eta ongi hornitua da, hitz horien adiera guztietan. Bai bere 383 orrialdeen 29 x 22 cm-ko neurri oparoak, paper eta tipografia dotore-zainduan eta ehuneko koadernaketaz ondu diren aldetik, eta baita, xeheki azaltzen saiatuko naizen bezala, bere eduki landu eta dokumentatuaren aldetik ere.

Bizkaiko Batzar Nagusiak agertzen dira argitaratzaile, Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaiena Institutua ere azalean agertzen delarik, baina harrigarria bada ere, ez da inon ageri ISBN zenbakirik.

Zazpi ataletan egituratua dago liburuak, hasierako “Agur” eta “Berbaurreko” laburrez gainera. Goazen, bada, atalez atal liburu honek eskaintzen diguna aztertzera.

“Hizkuntzen erabilera Bizkaiko Batzar Nagusietan” lehen atalaren sarrera historiko orokorra egiten duen ‘Euskara forutasunaren eskutik’ azpiatal laburrak hainbat gogoeta indartsu plazaratzen ditu: Euskal Herriaren hizkuntza-aniztasun historikotik abiatuta, euskarak ez duela boterearen eta herritarren arteko harremanetarako balio-garritasun osoa erdietsi esaten da, eta gaineratzen da XIX. mendera arte foruak berak ahalbidetu duela diglosia egonkorra zeinean harreman juridikoa arruntak, ahoz gauzatzen direnak, euskaraz bideratu ziren, eta goi mailakoak, eta agintarien jardun idatzia, ia salbuespenik gabe, gaztelaniaz. Hiru baieztapen zentzuzko eta taxuzko, bere toki doian ipini ahal izateko azterkizun dagoen euskal testu juridikoen mordoak. Izan ere, ahozko erabilera orokor eta ugaria ukaezinezkoa zen munduan, euskarak ez du, salbuespenak kenduta, idatzizko agerpenik.

Batzar Nagusietan ordezkarari izateko gaztelaniaz irakurtzen eta idazten jakiteko beharraren berri ematen duen lehen agiria Espainiako Carlos I. erregeak Gipuzkoarako 1529.ean ezarritakoa bada ere, Araban eta Bizkaian antzera ibiliko zirela ustekoa da. Baldintza hori ez betetzearen ondorioez jasotako zigorrez maiz hitz egin da, baina ez da hain ezaguna berehala agertzen direla araua betetzeko zailtasunak, eta betetzearen frogak, eta horren lekukotasunak ugarituz doazela.

Jakingarria, ildo horretan, XIX. mendearen hasieratik kanpokoan eta etxekoan luma ospetsuetatik dauzkagun testigantzak, zeinetan adierazten baita gaztelania eta euskara, biak, etengabe erabiltzen zirela Bizkaiko Batzar Nagusietan. Eta erabilera ez zen gertakizun hutsetan geratu, ofizialdu ere egin baitzen: 1833an hasita, Batzar Nagusien barne araudiak hainbat bider arautu zuten halako eta halako ekitaldietan gaztelaniaz eta euskaraz jardungo zela, ahoz eta baita idatziz ere.

Ahozko zein idatzizko erabilera horiei buruz ezagutzen dena biltzen da ondoren. Aktetan jasota dagoenez badakigu azken batzarraldia arte, 1877 arte alegia, normaltasun handiz erabili zela euskara. Aktetan euskararen erabilerari egiten zaizkion aipamen guztiak jaso ondoren, ondorioak ematen dituzte egileek 'Ahozkotik idatzizkora: kontu-arrazoiak' izeneko azpiatalean. Galdera garrantzitsu bati erantzun nahi diote: zergatik ekin ote zioten Batzar Nagusiek euskararen diglosia egonkorra eta elebitasunik gabekoa hausteko saiolari? Eta hauek egileen ondorioak: lehenbiziko xedea, euskaraz gaztelaniaz baino hobeto zekitenek uler zezaten, bigarrena, koroaren kezak eta ardurak ahaldunei, eta baita alkateei eta beste agintari guztiei benetan, eta ez formalki bakarrik, jakinaraztea, hirugarrena, forua ezagutaraztea euskaraz euskaldunari foruzale izan zitezen, eta laugarrena, euskal letrek garai hartan izan zuten loraldia, eta Bizkaian hizkera estandar bat sortu izana, hain zuzen ere, bertako itzultzaile Mogel eta Uriarteren eskutik.

"XIX. Mendeko euskarazko testugintza" izenburuko bigarren atal nagusian, lehenik eta behin, Bizkaiko Batzar Nagusien eskutik, 1846tik 1872ra bitartean, aktetan inprimaturik euskaraz agertzen diren testu guztien aurkezpen xehatua egiten zaigu, bere ingurune historikoan kokatuaz, eta itzuliak direnez, ezaugarri horri dagozkion hainbat alderdi aztertuz. Testu horiek dira aurrerago, laugarren atalean, gaztelaniazko jatorrizkoen aurrez aurre irakurri ahal izango ditugunak.

Ondorengo bi azpiatalak, itzulpengintzari dagozkionak, dira, nire ustez, esanguratsuenak. Bi itzulpen mota bereizi behar dira erakunde haien jardunean: ahozkoa bat, zalantzarik gabe zaharrena, eta liburuaren aurreko atalean argi geratu den bezala, ziu-rrenik mende guztietan eta batzarraldi guztietan egin behar izaten zena, ez soilik XIX. mendean. Besterik da zenbaterainoko ofizialtasuna aitortzen zitzaion ahozko itzultzailearen jardunari. Atal honetan, aktetan jasota diren interpreteen berri xehatua ematen da. 1848koa da lehen interprete izendatuaren aipamena, eta hurrengo urteetan ere, hainbat aldiz batzarkideren bati ematen zitzaion ahozko itzulpenen eginkizuna, edo hizlariak, beren beregi, ematen zuen gaztelaniaz esandakoaren euskal ordaina.

Baina egileen ustez, interprete lanean aritutakoen izen horiek ez dagozkie idatzizko itzulpenen egileei. Nortzuk izan ziren Batzarretan irakurritako hitzaldiak idatziz euskaratzeko ardura hartu zutenak, ez da guztiz garbitutako kontua. Ez da gardena Bizenta Mogelen parte-hartzea, nahiz eta argudioak izan horren alde; ordea badirudi Frai Jose Antonio Uriarte frantziskotar idazlearen egiletza duda ezinekoko dela hainbat urtetan. Beti ere, erabateko ziurtasunik gabe, eta itzulpen idatzia agertzen den azken urteetako lana (1868-1872) nori egotzi zintzilik geratzen den auzia delarik.

'Itzultzearen nondik norakoak' izeneko azpiatalean, besteak beste, itzulgai ziren zenbait agiritan, bereziki korrejidorearen hitzaldietan, aro berriko, liberalismoko, kontzeptu eta ideia berri asko mintzagai zirenez, zein lexiko erabili ote zen aztertzen da.

Hainbat adibideren bidez argitu eta egiaztatutako erantzuna da ez dela ia agertzen beste arlo edo toki batzuetan zabaldu samarra zegoen Larramendiren hiztegiakoa, bai- zik eta bide zaharrari, herri-jardunean oinarritutakoari, ekin zitzaiola, salbuespen gutxi- rekin. Horrela, *Juntas Generales Junta* edo *Batzar Generalac* dira; *nación, erreñua* gehienetan eta *naciñoia* batzuetan; *diputado, diputatu; decreto, dekretu* eta *comercio, comercio* edo *artuemonac*, esate baterako.

Itzulpengintzan adituak direla egileak nabarmena da gai horri eskaini dioten toki eta ahaleginaren aldetik. Bereziki interesgarria da hurrengo azpiatala 'Itzuliaren edu- kia: Itzultze-lanaren argilunak' izenburua daramana. Azpiatal horretan, kontuan hartu- ta itzulpen-lanaren helburu soziopragmatikoak, gaztelaniazko sorburu-testutik euskarazko xede-testuetara igarotzean gertatutako informazio-irabaziak eta galerak aztertzen eta balioztatzen dira adibide multzo handi bat kontuan hartuaz. Ondorioetan nabarmen azaltzen da informazio-galerak irabaziak baino sarriago gertatzen direla: itzultzailearen kezka nagusia irakurlearen ulertze-gaitasuna baita. Baina, azterketak agerian ipintzen duen legez, hainbat kasutan euskararen eta gaztelaniaren arteko aldea ez dagokio soil-soilik mezuaren hartzaileak merezi duen begiruneari, baizik eta itzultzailearen hautu ideologiko bati: erdaraz *nuestro derecho* agertzen den tokian *geure geuriak dirian forubetatic* edo *Gobierno supremo de la nación*-en orde *Erreinuco Gobernarijai* jartzen denean bezala. Bestalde, herri-hizkera ez oso landura horrelako testuak itzuli nahi izateak nahitaezean eraman behar zuen itzultzailea erdal hitz zeha- tzen orde euskal hitz guztiz orokorrak hautatzera.

Ondorio bezala, testuok balioesterakoan, guztiz bat nator egileekin, euren hitzak erabiliaz: Bizkaiko Batzar Nagusien saio horrek

“Estatusari dagokionez, ordu arteko historia guztian egundo ere izan ez zuen bidea ireki zion euskarari; corpusaren aldetik, zer esanik ez, Frantziako Iraultzaren ondorengo saiorik trinkoena izan zen hori, bere akats, aje eta guzti (...)”.

Hirugarren atala, hau ere mardula, berrogeita hamar orrikoa, “Euskarazko testuen hizkuntza-azterketa”, lau gai hauen arabera banatuta dator: a) grafia eta fonetika, b) deklinabidea, c) joskera eta d) aditza. Testuen hizkuntza-azterkeari ekiterakoan zerga- tik aukeratzen diren puntu horiek eta ez beste batzuk ez dago inon azalduta, eta niri ez zait erraz egin arrazoibidea bilatzea.

Horrek ez du kentzen, inondik inora, aipatu alderdien arabera aukerak eta alda- erak biltzen eta antolatzen egindako lan handiaren interesgarritasuna.

Horrela, adibide batzuk ematearren, deklinabide-formen azterketak erakutsi digu plural hurbila, -oc formakoa, oso gutxitan agertzen dela, edo konpletiboetan -la atziz- kia dela ugariena, eta -na adibide bakar batean agertzen dela, edo izenordain indar- tuek eta posesiboek forma ezberdin asko hartzen dituztela. Azpimarragarri iruditu zait zenbat aldiz agertzen diren testu horietan, *zein* galdegilea + mendetasun markarekin eratutako erlatiboak, ondoko adibideetakoaren arabera:

“icen andico arbolapian, cein dan bere foru eta gurasosco covernubaren irudi bat ceñen gañian iñoc bere dudarc ecin euqui leiquian”.

Azpimarragarria, bereziki ohartzen bagara handik urte gutxitara, gauza arrotz eta jatortasunaren aurkakotzat, euskal idatzietatik erauzi egingo zela baliabide hori.

Dena dela, badira atal honetan, zehaztasunez eta doitasunez azterturiko gehie- nen artean, behar bezalako arretaz lan egin ez izanaren ondorio diruditen pasarteak. Ikus ditzagun batzuk:

110. orrialdean, '2.2. frikariak', honela dio: "b) /s/ fonema: fonema horri buruz ez dago ezer berezirik esateko, beti agertzen baita <s> grafiarekin"; baina testuan bada kontrakorik, esate baterako: *euzcaldunen* (1848.3) eta *euzcal erri* (1848.5). Horrelako hitzetan <z> aurkitzea <s> grafiaren ordeztatu beharrekoa zela uste dut.

114. orrialdean, 'Ergatiboa (nork)', honela dio: "Formaz denaz bezainbatean, (e)c mugagabeen erabiltzen da, baita erakusleekin ere", eta adibideetan: *directore oneec eguin dabe esposición bat* (1866.1.33). Argi dago ez dela mugagabea. Gainera, kokapena gaizki dago, ez baita 1866.1.33n agertzen, 1866.1.34n baizik

132. orrialdean, '2.2. Erlatibozkoak C) Cein, cembat, non', honela dio: "oso ugari erabiltzen dira cein...-n, cembat ...-n, non...-n", eta horren indargarri, honako adibidea:

"Ceubec daquizube (...) cembat aurreratu leijan..." (1846.5)

Ez da, argi dago, erlatibozko esaldia, zehar-galdera baizik. 'cembat'-ekin osaturiko erlatiboen adibide bakarra deuseztaturik geratzen da. Ondoko bi adibideotan ere, oker bera egiten da, esan nahi baita, erlatibozkotzat ematen dira zehar galderak direnak:

"ez daucat gomutatu biaric zubéi ce egoqui eta biarra den eguitia euren auquera (1858.4) icusiric ce estadutan aurquituten ciran abereen paradaac" (1866.1.26)

136. orrialdean, '2.9 denborazkoak C) LA' adibideen artean, ez denborazkoa, konpletiboa baizik den bat ematen da:

*berau dala munduco lur, eta erriric oneenen bat*

eta 137. orrialdeko '29 denborazkoak D) -(R)IK'entzat proposatzen diren adibide gehienak ez dira denborazkoak.

Bestalde, badira betegarri iruditu zaizkidan azterketak eta azalpenak. Esate baterako, 139. orrialdean 'IV aditza' azpialaren azalpen gisa esaten da:

"Testuotako aditza aztertzeko tenorean bi multzo nagusi bereizi dira hasiera-hasieratik: aditz jokatugabea eta aditz jokatua. Bereizketa hori egiteko irizpidea ondokoa izan da: aditz jokatuek pertsona eta aldia markatzen dute (ibili ginen, darabil, esan diot) eta jokatugabeek, ordea, ez".

Nire ustez, aski ezaguna da jokatu/jokatugabe bikotea inolako azalpenik ematen aritzeko.

Laugarren atala, "Testu elebidunen bilduma" izenekoa, horixe da: aurrez aurre, ezker-eskuin aurkezten dira Bizkaiko Batzar nagusien jatorrizko erdal testuak eta euskal itzulpenak. Hasierako ohar batek argitzen du testu bakoitzari dagozkion zertzeladak aurretik emanak direla, jatorrizko grafia eta ortotipografia erabili dela, okerraz zuzenduaz eta lerrokadetan antolatuz. Azken ohar batek argitzen digu erdal testuetan agertzen den hutsunea, 228. eta 230. orrialdeetan, azken hau irudi batekin bete, aktetan dagoenari dagokiola.

Hurrengo atala, "Testuen lexikoa gaztelania-euskara" ia ehun orrikoa, 1.200dik gora sarrera dituen. Aitzin oharrean esaten den bezala, ez da hizkuntzako hiztegi batean aurkitzen diren moduko sarrerez eratutako lexikoa, baizik eta hitzez gainera, gaztelaniazko erakundeen izendapen, esapide, fraseologia, eta formulen errepertorioa, bakoitzak euskarazko testuetan dituen ordain guztiekin, testuinguruz, eta koka-

pen-datuez horniturik. Oso interesgarria, itzulpenarenarekin batera, testu haietako baliabide lexiko-fraseologikoak ezagutzeko:

“Horren bidez, begiraldi arin batean baieztatu ahal izan ditugu egileek egindako hizkeraren karakterizazioa. Izan ere, testu horiek ez dute, zenbait aldetatik, zerikusirik XX. mendean, ia hasieratik ikusiko ditugun gehienekin. Hizkuntz baliabide guztiek norabide berera jotzen dute: euskaratzen da euskaldun batzuek hobeto uler dezaten, eta ez, euskaraz egiten dela erakusteko. Testu horiek balio sinboliko handia zuten hizkuntzaren ospeari zegokionez, baina hizkuntzak ez zuen hori pairatzen, geroago hainbatetan gertatuko zen bezala. Jendeak uler zezan idazten zuten *legueetaco liburua* gaztelaniak *código* zioen tokian, *guizon-talde edo comisinoia* erdarazko *comisión*-en ordeztan, *convenio edo tratu* beste *convenio*-ren baliokide. Harrigarri gertatuko zaio hainbati ohartzea *askatasun* hitza ez zela erabiltzen, edo *uzenbide* hitzaren adierak, hainbat, eta oso ezberdinak zirela. Gutxi dira Larramendiren ereduari egindako keinuak. *Linargui* da behin eta berriz erabilitako hitza, *bacaraondea* (*monarquía* edo argibidea aurretik duela) eta beste bakarren bat”.

Bibliografia ondo hornitu batek osatzen duen hurrengo atalak, eta hiru testu inprimaturen facsimilak jasotzen dituen “Irudiak” izenekoak ixten dute liburu hau.

Antton Elosegi Aldasoro



### CALENDARIO de fiestas y danzas tradicionales en el País Vasco

Kepa Fernández de Larrinoa (dirección y estudio preliminar). – Vitoria-Gasteiz : Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2003. – 458 p. : il. col. y n. ; 24 cm. – ISBN: 84-457-2060-0

Euskal dantza tradizionalen katalogo erabilgarria eskaintzen du liburu honek. Dantza eta jaiei buruzko fitxak egutegiaren arabera sailkatuta bildu dira bertan. Euskal Herriko dantza tradizionalak noiz eta non aurkitzeko gida izateaz gain, dantza horiei buruzko oinarrizko ezaugarri eta deskribapenak eskaintzen ditu.

Katalogo honekin borobildu du Kepa Fernández de Larrinoak 1995ean abiatutako lan egitasmoa. Dantzaren sustapenerako zenbait ekimen bideratu zituen Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak, eta dantza tradizionalaren alorrean ondarearen katalogazioa eta ikerketa lanen sustapena bultzatu nahi izan ziren. Helburu horrekin hiru lan nagusi jarri zituen abian Fernández de Larrinoak. Batetik euskal dantza tradizionalaren bibliografia zabal eta eguneratua gidatu zuen eta 1998an ikusi zuen argia lan horrek: *Invitación al estudio de la danza tradicional en el País Vasco: recopilación bibliográfica y comentario crítico*. Horrekin batera, folklorea eta dantza tradizionalaren ikerketarako kontzeptu teoriko eta metodologikoak bildu eta lau ikertzaile lagun hartuta tresna horien aplikazio praktikoa bultzatu zuen Euskal Herriko bazterreko eskualdetako dantza tradizionalaren ikerketen bidez. 1998an bertan argitaratu zen lan hori: *Fronteras y puentes culturales: danza tradicional e identidad social*. Bi horiekin batera